



Irati Pérez
Aixerrota BHI, 06-07

Aurkibidea

❖ Ortzadarra sutan	
➤ Idazlea	2
➤ Kokapena	2
➤ Edukia	4
➤ Egitura	6
➤ Forma	
▪ Baliabide literarioak	7
▪ Ahozko baliabideak	8
➤ Pertsonaiak	
▪ Protagonista nagusiak	9
▪ Bigarren mailako pertsonaiak	11
➤ Iritzia	12
❖ Bibliografia	14

Idazlea

Ortzadarra sutan eleberraren idazlea Fernando Morillo da, 1974an Azpeitian jaioa.

Zientziazale amorratua txikitatik, Fisika ikasten hasi zen baina Filosofia ikasketak burutu zituen. Lanbidez, denetarik egin du.

Hainbat literatur sariren irabazle da: Gudoste ametsak lanak Donostia Hiria saria eman zion 1999. urtean; Pasaiako Hiria, Igartza Literatur beka edota Gabriel Aresti saria irabazi ditu, besteak beste.



Gazteen arteko hartu-emanak jorratzen dituen Sexu egunsentiak eleberria argitaratu zuen 2000an eta Erraldoi herrena entsegua. Entsegu honetan, zientziaren eta poesiaren arteko erlazioak ditu hizpide. CAF-Elhuyar-ek emandako zientzia artikuluen gaineko sariaren irabazle suertatu da birritan.

2003. urtean Leonardo da Vinciren gaineko biografia kaleratu zuen, Elkar-en eskutik.

Zenbait obra idatzi ditu dagoeneko, ia genero guztiak landuz: haur eta gazteentzako literatura (Bilatu nazatela, Sexu egunsentiak, Bihotz nahasiak, Izar-malkoak...), narrazioak (Gudaoste ametsak), nobelak (Ortzadarra sutan, Gloria mundi, Dragoien orroa, Idoiaren agenda...) eta saiakera-liburu bat: Erraldoi herrena.

Kokapena

Ortzadarra sutan nerabe eta gazteen gaineko nobela bada ere, ez da horiei bakarrik zuzenduriko nobela; ez da umeentzako literaturan sartzen, haurrentzat liburu honen istorioaren haria jarraitzeko eta ulertzeko nahiko zaila izango litzatekeelako, baina gazteentzako eta helduentzako literaturan sailkatu daiteke.

Nobela honek ez du estilo jarraia erabiltzen, urte ezberdinetan gertaturiko bi istorio tartekatzen baititu; bata "1986. urtea", eta bestea "2002. urtea". Nahiz eta bi hari hauen atalen sarrerak garai horri erreferentzia egin, eleberrian irudikaturiko gertaerak urte jakin hauetan kokatzeak ez du berebiziko garrantzirik. Izan ere, batik bat hamabost urte hauek pertsonaiak nola eraldatu dituzten aurkeztu nahi izan da. Hartara, gazteek izan ohi duten bizi gogo, jakin-min eta ausardia, denboraren igarotzeak ekarri ohi duen asperdura eta ohikotasunarekin alderatzen ditu, gazteen gogo bizi horiei eusteko beharraren alde eginez. Pertsonaien arteko harremanak gehienbat elkarrizketen bitartez irudikatzen zaizkigu. Honela, eleberria elkarrizketa biziekin josita dago.

Bestalde, eleberriaren hasieran pertsonaien arteko harreman argiak irudikatzen hasten badira ere, istorioak aurrera egin ahala harreman sarea korapilatuz joango da, eta harremanak iluntzen eta lausotzen joango dira.

Edukia

Ortzadarra sutan abenturazko istorio bizi-bizi bat da. 1986an lau neska eta lau mutilek osatutako koadrila Donostian pasatutako oporretan bizitzen dituzten abenturak kontatzen ditu 249 orrialdeko eleberri honek.

- Argumentua

18 urteko lau neska-mutilek udaldia pisu batean elkarrekin pasatzea erabaki dute. Elkar hobeto ezagutzen doazen heinean, laguntasuna, desioak, lehen sexu eta amodio abenturak biziko dituzte. Elkarren berri izan gabe 15 urte igaro ondoren, telefono dei batek denak elkartuko ditu berriz, eta bizitzaren ikuspegia aldaraziko dien gertaera biziko dute.

- Istorioa

1987. urtean, eskola amaitzear zegoela, Alex, Imanol, Julen eta Haritz mutil gazteak udan egingo zutenari buruz pentsatzen hasi ziren. Alexek, taldeko liderra, bizitza zeharo aldatuko zien erabakia hartu zuen: aste bat Donostiako pisu batean igarotzea beren adin bereko lau neskarekin (Alazne, Mirari, Irene eta Arantxa). Hasieran, neskei eta mutilei ideia hau ez zitzaien gustatu, baina azkenean, elkar ezagutzeko eta aste beteko abentura bizitzeko aukera ezin hobea zela konturatzean proposamena onartu zuten.

Suertatu zitzaien pisu bakarra Imanolen anaiak Donostian zuena izan zen; baina hau ez zegoen ados gazte haiei bere bizilekua uztearekin. Horregatik egun batean, jabearen baimenik gabe pisuaren giltzen kopia bat hartuta, 18 urteko zortzi neska-mutilak oporretara joan ziren. Han, hainbat bikote sortu ziren (Mirari eta Julen, Imanol eta Alazne); eta, batez ere, asko elkartu ziren bata bestearengan, oso harreman estuak sortuz euren artean. Hala ere, presaka alde egin behar izan zuten pisutik Imanolen anaia ustekabean agertu zenean espero zuten eguna baino lehenago.

Beren herrira bueltatzean, elkarren arteko harremanak hautsi egin ziren: Alazne Imanolekin ateratzen zegoen bitartean, koadrilako beste batekin (Alexekin) engainatu zuen; ondorioz, hirurek ez zuten berriz elkar ikusi ezta hitzik ere egin nahi izan. Bestalde, Julen eta Mirari Bilbora joan ziren elkarrekin bizitzera. Horrela, bakoitzak bere bizitza bizi izan zuen, besteengandik aldentuta.

2002. urtean jadanik 30 urte inguru zituzten; urte tarte horretan elkarren berri oso gutxi izan zuten, batzuek batere ez, baina kideetako batek gainerakoei egindako telefono deiak afari batera deitu zien guztiei. Aspaldian lagun ziren batzuk orain bikote ziren, eta lehen bikote edo zirenak orain ia ezezagun ziren.

Baina denak elkartzearen arrazoia hurrengoa zen: Alexek garunean tumore bat zeukan eta eskizofreniak eldarnioak sorrarazten dituenek, Alex existitzen ez ziren ahotsak edo irudiak hautematen hasi zen (Maddi neska ile zuriduna asmatu zuen). Gaixotasun hura zela eta medikuek bizitzako denbora gutxi geratzen zitzaiola esatean, momentu horretan gehien nahi zuena egin zuen: garai bateko lagun guztiak elkartu eta "bide ona" berreskuratzen lagundu. Beraren ustez bizitza zena erakusteko, hurrengoa egin zuen: guztiak bilduta zeudenean ermitan, Alexek eztanda bat eragin zuen. Handik gutxira lagunek zulo bat aurkitu zuten eta haren bidez kanpoaldera atera ziren; hala ere, Alexek ez zuen atera nahi izan, bere bizitzako azken momentuak bizi nahi izan zituen; hau dela eta, bigarren leherketa bat egin zuen eta ondorioz, bertan hil zen. Bestalde, zazpi lagunek Alexek erakutsi nahi izan ziena ulertu zuten: arriskuan jarri nahi izan zituen, hiltzera zihoazela pentsa zezaten; momentu horretan, ahaztuta zuten ausardia gogoratu zuten eta zabarkeriaz eta ohikeriaz amore emateagatik galdu zutenaz konturatu ziren. Horrela, beren arteko loturak berreskuratu zituzten; hala ere, denbora beharko zuten gauzak zeuden moduan jartzeko.

Egitura

Narrazioa ez da kronologikoa, atzera eta aurrera dabilena baizik, baina irakurleak ez du galtzeko aukerarik, atal bakoitzaren hasieran jartzen baitu 1987a den, ala 2002ko kontuez ari den. Egitura honek batzuetan eten egiten du gertakarien kontaketa, baina jakin-mina ere pizten du. Hala, nerabegarotik gaztarora eta gaztarotik nerabegarora pasatzen da bi garaiek topo egin eta elkar osatu arte. Oso bide egokia da bi sasoiaren artean dagoen kontrastea azpimarratzeko: alde batetik, 18 urteetako bizitzeko grina, eta bestetik amestutako desioen zapuzketa.

Elkarrizketa asko ditu, eta hika ari dira lagunak euren artean; lagun arteko erregistroan ia beti, egoerak hala eskatzen du eta.

Ortzadarra sutan eleberrian, hasiera-korapiloa-desenlazea egitura arrunta betetzen da, baina ez du ordena jarraitzen, saltoak egiten baititu 1987 eta 2002 urteen artean, hasiera eta korapiloa osatuz; nahiz eta azkenean batzen diren amaiera edo desenlazea osatuz:

- **Hasiera.** 1987. urtean zortzi neska-mutilak Donostiara aste beteko oporrak pasatzera joaten dira.
- **Korapiloa.** Oporretatik bueltan, haien herrian, Imanolek Alazne eta Alex larrutan harrapatzen ditu, Alazne eta Imanol irteten ari zirela. 2002an, telefono misteriotsu batek Astigarribiako eliza batean zortzi gazteak batzen ditu.
- **Amaiera.** Alexek bileraren zergatia azaltzen die eta bere azken desioa aitortzen die. Alexek leherketa bat prestatzen du, berak han hiltzea erabakitzen du; besteak elizan sortutako zulo baten bidez irtetea lortzen dute, denen arteko harremanak berpiztu egiten dira.

Forma

Jarraian, idazleak istorioan zehar erabilitako baliabide literario eta ahozko baliabide batzuk aipatuko ditut, horiek agertzen diren orrialdea adierazita.

Baliabide literarioak

- **Metaforak**

- Bahitutako bihotza nahi zuen. (46)
- Bizitza tren zahar bateko azken bagoi bihurtu zitzaion. (59)
- Gauzak hobeto baizik ez dizkizuet utzi, artaburuak. (82)
- (Alex) Munstro bat zen. (101)
- Mirariren begiak zulo beltzak ziren, infinituak, totelak. Urperatuak (171)
- (Patxik) Tximistak botatzen zituen begietatik. (175)

- **Konparazioak**

- Ilargia bezalako aurpegi zurbil-borobilarekin (17)
- Elur ozeano batean galdutako bi beleren antzera (38)
- Xaboi-burbuila hauskorra izango balitz bezala (60)
- Basamortuko sirokoaren modura (61)
- Muskuilua arrokari bezala itsatsi. Presoa askatasunari bezala. (63)
- Elkar ikertzen jarraitzen zuten, museo bateko artelanak balira bezala (104)
- Julenen ezpain artetik hortzetako pasta hasi zen irteten, gainezka egiten duen urtegi bat bezala. (174)

- **Pertsonifikazioak**

- Horma hauek hizkuntza misteriotsu batean ariko balira bezala. (171)
- Zeruak pintzelada beilexka eta urdinxkak zituen. (183)
- Haizearen Orrazia. (184)
- Emakumearen hileak piztu egin ziren (196)

Ahozko baliabideak

- **Esamoldeak:**

- Batera eta bestera mugitu burua (14)
- Zora-zora eginda egon (14)
- Zuzen-zuzen ibili (14)
- Nola edo hala (16)
- Bat-batean (16)
- Ozta-ozta (22)
- Serio-serio (44.or)
- Zur eta lur geratu (45)
- Geldi-geldi jarraitu (48)
- Senar-emazte (53)
- Adarra jo (55)
- Seme-alabak (64)
- Luze-luze etzan (73)
- Tipi-tapa (87)
- Justu-justu (81)
- Txiki-txiki (91)
- Zabal-zabal (100)
- Doi-doi (102.or)
- Neska-mutilak (109)
- Txora-txora eginda egon (205)
- Noiz edo noiz (241)

Pertsonaiak

Ondoren, obran agertzen diren pertsonaiak azalduko ditugu, garrantziaren arabera ordenatuta.

• **Protagonista nagusiak**

Alex. Kaskamotzak eta besoan tatuaturik zeraman pirata-banderak lagunuen artean nabarmentzen zuten, koadrilako liderra eginez. Nesken artean ospe handia zuen gaztea zenean, hori izan zen hainbat eztabaidaren arrazoia. Oso lagun ona zen, batzuetan erakusten ez zuen arren; hori dela-eta nagusitu zenean eta gaixotasun bat zela eta bizitzaren azken momentuetan zegoela esan ziotenean, aspaldian egindako hanka-sartzeak konpondu nahi izan zituen. Horretarako, bere gazte-garaietako lagunak bildu zituen eta hauen arteko lotura harremanak berreskuratzen lagundi zien. Bere azken nahia bete ondoren, bere burua hil zuen.

Imanol. Izaera fisikoz, argala, ile kizkurra eta kokospekoa zuen. Hala ere, gaztea zenean nahiko lotsatia zen neskekin. Horregatik guztiz ziur zegoen arte ez zen ausartzen gustuko zuen neskekin hitz egiten. Hala gertatu zen Alaznerekin, bere bizitzako neska zela pentsatzen zuen; honek bere lagun batekin engainatu zuen arte. Orduz geroztik, ez zen beste inorekin maitemindu. Bestalde, lagunengatik edozein gauza egiteko prest zegoen gehienetan; adibidez, bere nebaren pisuko giltzen kopia bat atera zuen, bere lagunekin bertan aste bat pasatzeko oportretan.

Julen. Bronto esaten zioten lagunek, askotan, lepoa luzaturik eta zuzen-zuzen ibiltzeko mania zuelako, eta Brontosauro bat ematen omen zuelako. Inoiz ez zuen jakin zer nahi zuen; horregatik nagusitzean injinerutza ikasi zuen, zerbait ikastearren. Lagunekin oportretan joan zenean, Mirarirekin maitemindu zen lehenengo momentutik eta beraren atzetik egon zen nahi zuena lortu arte; beren arteko harremana jarraitu zuen nagusitu zirenean, ezkondu baitziren.

Haritz. Gaztetan armairua zirudien arren, bizkar zabala zela eta, ez zen taldeko oldarkorrena; haren indar fisikoa eta kemen falta

zuzenki proportzionalak ziren: liburuak irakurtzen hazi zen, horietan aurkitzen baitzuen inguruko errealitatean faltan sumatzen zuen bizigarria. Liburuetatik irtetea, ordea, nahiko beldurtia edo koldarra sentitzen zen. Bere izaera ez zen asko aldatu nagusitu zenean; hala ere, beti izan zen zintzoa eta lagun ona.

Alazne. Gaztetan panpina itxura zuela aurpegiratzen zioten askotan; pixka bat ezagutzen zutenek, ordea, ondo zekiten irudi ahul gisako horren azpian arima tinkoa gordetzen zela. Dirua irabaztearren, gurasoen tabernan egiten zuen lan ia astebururo. Mutilen artean ospe handia zeukan eta askorekin egona zen; horregatik, Imanolekin irteten zegoen bitartean, ezin izan zuen jasan besteekin ez probatzea; hori zela eta, beste batekin engainatu zuen. Hala ere, benetan maitemindu zen Imanolekin eta hori ezin izan zion inoiz bere buruari barkatu, ezta nagusitzean ere.

Mirari. Oso lagun ona zen; baina bere sentimenduak eta pentsamenduak ez zituen inoiz oso argi izan. Adibidez, mutilen koadrila ezagutu zuenean, Alexen atzetik ibili zen lehenengo momentutik; hala ere, denborak aurrera egin zuen heinean, taldeko beste mutil bati jarri zion arreta eta ez zuen denbora askorik izan behar berarekin maitemintzeko; dena dela, nagusitzean Julenekin ezkondu zen arren, ezin izan zuen inoiz Alex ahaztu.

Irene. 18 urterekin beti mutilekin pentsatzen zuen arren, taldeko alaiena izaten zen eta bere lagunak pozik egoteko edozer gauza egin zezakeen. Dena den, nagusitzean bere izaera zeharo aldatu zen: bere burua gutxiesten hasi zen eta hainbat ebakuntza egin zituen. Hala eta guztiz ere, bere gaztaroko lagunak berriz ikustean, garai bateko Ireneren freskotasuna eta alaitasuna berpiztu egin ziren.

Arantxa. Bere lagunak bezala denborarekin bere izaera guztiz aldatu egin zen, garai bateko kirolari aparta eta bere buruaz harro sentitzen zen neska, nagusitzean sasoia galdu zuen eta bere buruaz lotsa sentitzen zuen. Hori jakinda ere, bere benetako lagunak berriz ikustean eta haiekin pasatako une onak gogoratzean, aspaldiko Arantxa atera zen bere barnetik, bere buruaz seguru sentitzen zena eta lagun ezin hobea zena.

• Bigarren mailako pertsonaiak:

Patxi. Imanolen anaia zen, pisuaren jabea. Ez zen bere anaiarekin fidatzen, ez baitzion Imanol eta bere lagunei aste beterako bere pisua utzi nahi izan. Hori dela eta, asko haserretu zen haiek pisuan bere baimenik gabe zeudela ikustean.

Amaia. Ireneren ahizpa zen. Beraren ustez, bere ahizpa eta haren lagunak burutik jota zeuden; hala ere, beti zegoen prest haiei laguntzeko.

Narratzailea hirugarren pertsonakoa da; gertaera guztiak, istorioaren barruan ez dagoen pertsona batek kontatzen dituelako. Baita ere, orojakilea da pertsonaia guztiek pentsatzen dutena eta sentitzen dutena baitaki.

Iritzia

Obra hau ulertzeko erraza da. Polita da irakurtzeko eta gure adineko jendearentzat ongi dago baina gazteagoentzat agian haria jarraitzeko zaila dela pentsatzen dut. Bereziki gazteei zuzenduta dago, haiek baitira istorioaren protagonistak; gainera idazleak adinari dagozkion kontuak aipatzen ditu: maitasuna, drogak, parrandak, bikoteak...

Liburu honetatik gehien gustatu zaidan esaldia, liburuaren amaieran agertzen den hurrengoa da:

«Gutako bakoitza ortzadar erraldoi baten zati txikia da. Eta ortzadarra nahiko nahasia da.»

Esaldi hau istorio osoaren metafora bat dela iruditu zait: hasieran, lagun guztien bizitzak oso gertukoak ziren, bata besteari oso lotuta, baina denbora pasatu ahala, haien bizitzak aldentzen joan ziren beren pentsamenduak eta sentimenduak nahasiz.

Bestalde, obratik gehien gustatu zaidan pasarte hurrengoa da:

«Ziztu bizian atera ziren zulo hartatik, bata bestearen atzetik. Kanpoan zeudela argi zegoen behintzat: euriak aurpegia busti zien. Keak dena hartzen zuen, hala ere, gutxi balitz bezala, gaua zen. Gainera ez zegoen sua beste argirik inguruan, eta honek ez zuen, zeuden tokian behintzat, askorik argitzen. Ez zekiten non zeuden eta ezin zuten ezer askorik ikusi.

(...)

—Hemendik! -oihukatu zuen Alaznek bat-batean, eztulen artean-. Etorri hona. Ur-hoditik!

(...)

Batak besteari lagunduz segituan jaitsi ziren. Lur parean ke gutxiago zegoen. Ermita barruko suak, hor bai, lekua

argiztatzen zuen, eta elkar ikusi ahal izan zuten: denek zeuzkaten beltzak aurpegiak; bihotza dardaraz. Lasterka urrundu ziren metro batzuk, badaezpada.

(...)

—Denok al gaude -galdetu zuen Mirarik, urduri.

—Alex falta da -esan zuen Julenek, guztiak aztertu ondoren.

—Barruan geratu al da? -galdetu zuen Imanolek.

—Ez zuen irten nahi -jakinarazi zion Julenek

—Atera egin behar dugu! -oihukatu zuen Mirarik, ermitara itzultzeko keinua eginez.

Beste eztanda bat entzun zen.

—Ez dago zer eginik. Hortik, egon seguru, ezin du inork bizirik atera.

Are gutxiago nahi ez bazuen -berretsi zion Imanolek.

(...)

Zazpi lagunak plazako albo batean zeuden eserita, aterpean eta bizpahiru ertzainek lagunduta. Zazpiak elkarren segidan zeuden, arropak urratuak eta aurpegiak, oraindik ere, zikin. Zazpi aurpegi nekatu. Zazpi aurpegi nahasi. Edozein eratan mozorrotutako ortzadar zarpaila ematen zuen.

(...)

—Baina zer egin zuen zehazki? Zertarako hori guztia? - Galdetu zuen Imanolek.

—Agian -teorizatu zuen Imanolek- guztiok elkartzeko? Gure arteko loturak berreskuratzeko edo?

Imanolek Alazneren eskua sumatu zuen berean. Barka eske isil modura. Gizonak eskua estutu zion. Irribarre laburra egin zioten elkarri. Gero, banatu egin ziren eskuak. Kontzientzia

arintzeko lain izan zen. Baina iraganak neke sendoegia zeraman berarekin. Denbora beharko zuten.»

Pasarte hau gustatzen zait lagunek, denbora luzea pasatu eta gero, benetako lagunak direla frogatzen dutelako, elkar zaintzen eta elkarri laguntzen diote. Gainera, idazleak ere aipatzen du elkarri barkatzen diotela, iraganeko guztia ahazteko eta gauzak zeuden modura bueltatzeko denbora beharko zuten arren.

Bibliografia

- "Ortzadarra sutan". Fernando Morillo, Elkar.
- "Eskolarako Hiztegi Entziklopedikoa". Lur.

Internetetik:

- <http://www.idazleak.org>
- <http://www.hiztegia.net>
- <http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00447.htm>